



6. HONDARRIBIKO ARGAZKI RALLYA



2025^{eko} UZTAILA^{ren} 25^{ean}
RECORRIDO HONDARRIBIA IBILBIDEA

ARITZ ARANBURUREN
OROIMENEZKOA

DATA: 2025eko Uztailaren 25ean.

ANTOLATZAILEAK: Ttopara Kultur Elkartea eta Hondarribiko Udala.

IBILBIDEA: HONDARRIBIA.

MODUA: Argazki kamera digitalarekin eta **JPG** formatuan izango da. Parte hartzaile bakoitzak, rallya hasi baino lehenago, bere argazki kamerako txartela hustuta izango beharko du.

GAIAK: BOST gai egongo dira eta hasieran "kontrolako" argazki bat egongo da (ez du puntuaziorik izango baina deskalifikatzeko balioko du entregatzen ez bada).

ARGAZKI KOPURUA: Gehienez 36 argazki aurkeztu daitezke (kontrolakoa gehituta).

PARTE HARTZAILEAK: Argazkilaritza gustatzen zaion edonor. Gazteen Sarian parte hartzen dutenek 16 urte artekoak izango dira eta inskripzioan adina adierazi beharko da.

INSKRIPZIOAK: Kasino Zaharrean (Kale Nagusiko sarreraren ondoan), egunean bertan goizeko 9:00etatik 10:00ak arte eta www.ttoparakulturelkarkea.org web gunean, Uztailaren 12tik 21era.

KONTROLEKO ARGAZKIA: Ibilidea hasi aurretik, kontrolako argazki bat egingo zaio partehartzaile bakoitzari.

TXARTELEN DESKARGA: Eguerdiko 13:00a eta 14:00en artean, egunean bertan, Kasino Zaharrean.

ARGAZKIEN AUKERAKETA: Abuztuaren 3ko gaueko 12ak arte izango da epea. Parte hartzaileek **idazkaritza@ttoparakulturelkarkea.org** helbidera bidali beharko dituzte, parte hartzailearen zenbakia eta aukeratutako argazkien zenbakia ipiniz.

INSKRIPZIOA: Helduek 10€, 16 urtetik beherakoek 5€. Inskripzioko ordainketa Rallya hasi baino lehen egingo da.

EPAIMAHAIA: Epaimahaia Argazkilaritza munduan garrantzia duten pertsonak izango dira. Antolakuntzak erabakiko du zeintzuk diren eta beraien emaitza aldaezina izango da.

SARIAK:

- 1. SARIA:** bildumarik hoberenari, diploma eta 200 euro.
- 2. SARIA:** bigarren bildumarik hoberenari, diploma eta 150 euro.
- 3. SARIA:** hirugarren bildumarik hoberenari, diploma eta 100 euro.

HERRIKO argazkilarik bozkatuenari: 100 euro.

GAZTEEN Saria (16 urte arte): 80 euro.

OHARRA: Parte hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du.

SARIEN BANAKETA: Irailaren 19an, gaueko 20etan. Lekua eta ekitaldiaren nondik-norakoa aldez aurretik jakinaraziko dira.

NOTAK:

- 1.** Rallya 14:00etan bukatuko da.
- 2.** Edozein arazo edo aldaketa sortuko balitz arau hauetan, antolatzaileek hartuko dute horren ardura eta aldaezina izango da.
- 3.** Argazkiaren egilea da pribatutasun-eskubideen inguruko erreklamazioen erantzule.
- 4.** Rally honen inskripzioak arau hauen onarpena adierazten du.